

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1923/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, 999/2001 (EE) Erregelamendua aldatzen duena. Azken erregelamendu horrek zenbait entzefalopatia espongiforme kutsakorra prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko xedapenak ezarri zituen.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*REGLAMENTO (CE) N^o 1923/2006 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 18 de diciembre de 2006, que modifica el Reglamento (CE) no 999/2001 por el que se establecen disposiciones para la prevención, el control y la erradicación de determinadas encefalopatías spongiformes transmisibles.*» (Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 404, 2006/12/30ekoa)

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Aplikatu ahal izateko, argitaratu egin behar diren egintzak)

1923/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko abenduaren 18koa,

999/2001 (EE) Erregelamendua aldatzen duena. Azken erregelamendu horrek zenbait entzefalopatia espongiforme kutsakor prebenitzeko, kontrolatzeko eta desagerrarazteko xedapenak ezarri zituen

(Testu egokia EEeri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, bereziki, Tratatuaren 152. artikulua 4. paragrafoko b) idatz-zatia,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Eta Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 999/2001 (EE) Erregelamenduaren helburua Erkidegoan entzefalopatia espongiforme kutsakorrenzako (EEKentzako) esparu juridiko bakarra sortzea da.

(2) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko ekainaren 8ko 932/2005 (EE) Erregelamenduaren bidez, 999/2001 (EE) Erregelamenduan aurreikusirik neurri iragankorrak ⁽⁴⁾ aplikatzeko epea, gehienez ere, 2007ko uztailaren 1era arte luzatu zen.

(3) Animalien Osasunerako Munduko Erakundeak 2003ko maiatzean egin zuen bilera orokorrean, herriak behien entzefalopatia espongiforme (BSE) izateko arriskuaren arabera sailkatzeko egun dauden nazioarteko irizpideak sinplifikatzeko Ebazpena hartu zen. 2005eko maiatzean egindako bilkura orokorrean proposamen bat onartu zen. 999/2001 (EE) Erregelamenduko artikulua egokitu behar dira, nazioarteko sailkapen-irizpide berriak islatzeko.

(4) Laginketak eta analisiak egiteko moduetan aurrerakuntza berriak gertatu direnez, aldaketa handiak egin behar dira 999/2001 (EE) Erregelamenduko X. eranskinean. Ondorioz, Erregelamendu horretan jasotako «diagnostiko azkarreko probak» kontzeptuaren definizioan zenbait aldaketa tekniko egin behar dira, X. eranskinaren egitura aldatzea errazagoa izan dadin gerora.

¹ C 234 EO, 2005.09.22koa, 26. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko maiatzaren 17koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), Kontseiluaren Jarrera Komuna, 2006ko azaroaren 24koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea), eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2006ko abenduaren 12koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

³ L 147 EO, 2001.05.31koa, 1. or. Azken aldaketa Batzordearen 1041/2006 (EE) Erregelamendua (L 187 EO, 2006.07.08, 10. or.) egin dio.

⁴ L 163 EO, 2005.06.23koa, 1. or.

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(5) Erkidegoko legeak argiak izan daitezzen, 999/2001 (EE) Erregelamenduan aplikatu behar da Erkidegoak elikagaien segurtasunari buruzko legedian ageri den «mekanikoki bereizirik haragia» kontzeptuaren definizioa; betiere, EEK-k errotik ezabatzeko neurrien testuinguruan.

(6) 999/2001 (EE) Erregelamenduak BSE eta ikararen jarraipenerako programa ezarri du. 2003ko martxoak 6an eta 7an eginiko bileran irizpen bat eman zen, eta, bertan, besteak beste, Zuzendaritza Batzorde Zientifikoak EEKen zerbidoetako jarraipena egiteko programa ezartzea gomendatu zen. Horrenbestez, Erregelamendu horretan proposaturiko jarraipen-sistema beste EEK batzuetara ere zabaldu behar da. Horrez gain, sistema aplikatzeko neurriak aurreragoko fase batean ere aplikatu behar dira.

(7) Batzordearen 2003ko otsailaren 13ko 100/2003/EE Erabakiaren bidez, entzefalopatia espongiforme kutsakorrekiko erresistenteak diren ardiak hezteko programak ezartzeko beharrezkoak diren gutxieneko baldintzak finkatu ziren ⁽¹⁾. Erabaki horren bidez, halaber, EEKei aurre egiteko gai diren ardiak aukeratzeko eta animalia horiek hezteko programa harmonizatua sartu zen neurri iragankor gisa. 999/2001 (EE) Erregelamendua aldatu beharra dago aipatu berri dugun programari oinarri juridiko iraunkorra eman ahal izateko. Programak aldatzeko aukera arautu behar da, horrela, kontuan hartu ahal izango baitira, batetik, zientifikoki egiaztaturiko emaitzak eta, bestetik, programak aplikatzearen ondorioak.

(8) 999/2001 (EE) Erregelamenduak hainbat animalia-kategoria elikatzekeo animalia-proteina aldatuen zenbait kategoria erabiltzea debekatu du. Horrez gain, salbuespenak arautzeko aukera aurreikusi du. Baliteke animaliak elikatzearen gain ezarri diren debekuetan hainbat kontu berri egotea, eta berrikuntza horien ondorioz Erregelamendu horretako IV. eranskinean aldaketak egin behar izatea. Dagokion artikulua egungo idatzian zenbait aldaketa tekniko egin behar dira, eranskin horren egitura aldatzeko aukera errazte aldera.

(9) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1774/2002 (EE) Erregelamenduak, 2002ko urriaren 3koak, zeinaren bidez pertsonak kontsumituko ez dituzten animalien azpiproduktuei aplika dakizkiekeen osasun arauak ezartzen diren ⁽²⁾, arriskutsutzat jotako materialak eta EEK-k jotako animaliak desagerrarazteko arauak ezarri ditu. Dagoeneko, zenbait arau ezarri dira animalia jatorriko produktuak Erkidegoaren leku batetik bestera eramateko. Horrenbestez, Erkidegoko legeak koherenteak izan daitezzen, arestian aipaturiko materialak eta animaliak ezabatzeari buruzko 999/2001 (EE) Erregelamenduaren indarreko arauak kendu eta, haien lekuan, 1774/2002 (EE) Erregelamenduari erreferentzia egin behar zaio. Bestetik, zirkulazioaren gain 999/2001 (EE) Erregelamenduan ageri diren arauak buruzko erreferentzia ezabatu behar da.

(10) Arriskutsutzat jotako materialetan gertaturiko berrikuntzen eraginez, aldaketa handiak egin beharko dira 999/2001 (EE) Erregelamenduaren V. eranskinean. Erregelamenduaren dagozkion xedapenen egungo formulazioan zenbait aldaketa tekniko egin behar dira, eranskin horren egitura aldatzeko aukera errazteko.

(11) Erkidegoan debekaturik dago burezurreko barrunbean gasa injektatuz animaliak zorabiatzea. Nolanahi ere, gasa injekta dakieke behin zorabiatu ondoren. Hortaz, zorabiatu ondoren animaliei burezurreko barrunbean gasa injektatzea debekatu aldera, 999/2001 (EE) Erregelamenduan jaso diren animaliak hiltzeko metodoei buruzko xedapenak aldatu behar dira.

999/2201 (EE) Erregelamendua ⁽³⁾ aldatzen duen Batzordearen 1915/2003 (EE) Erregelamenduak zenbait xedapen berri ezarri ditu ardiaren nahiz ahuntzen ikara erradikatzeari buruz. Hartara, animalioi ikara duten susmo ofiziala badago, susmopean dauden usiategietako ardiak eta ahuntzak leku batetik bestera eramatea debekatu beharra dago.

¹ L 41 EO, 2003.02.14, 41. or.

² L 273 EO, 2002.10.10ekoa, 1. or. Azken aldaketa Batzordearen 208/2006 (EE) Erregelamenduak (L 36 EO, 2006.02.08koak, 25. or.) egin dio.

³ L 283 EO, 2003.10.31koa, 29. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(13) Ezagutza zientifikoaren eboluzioa oinarri harturik, 999/2001 (EE) Erregelamenduak behiak, ardiak eta ahuntzak nahiz berorien esperma, enbrioak eta obuluak merkaturatzeari edota ustiatzeari buruzko arauak beste espezie batzuetara zabaltzeko aukera eman behar du.

(14) Zuzendaritza Batzorde Zientifikoak 1998ko ekainaren 26an emandako irizpenean, dikaltzio fosfata fabrikatzeko lehengaien iturriei zenbait murriztapen ezartzea gomendatzen da. Hori dela eta, dikaltzio fosfata kendu behar da 999/2001 (EE) Erregelamenduaren arabera merkaturatzeko murriztapenik ez duten produktuen zerrendatik. Argitu egin behar da esneak eta esnekiek murriztapenik izan behar duten ala ez.

(15) Jakintza zientifikoaren eboluzioa eta arriskuaren sailkapena oinarri harturik, eta babes-neurriak har badaitezke ere, 999/2001 (EE) Erregelamenduak ahalbidetu behar du, betiere komitologia prozedurarekin bat, EEK arrisku zehaztugabea edo kontrolpeko EEK arriskua duten estatu kideetatik edota hirugarren herrialdeetatik datozen animalia-jatorriko produktuak merkaturatzeko eta esportatzeko baldintza zehatzagoak ezartzeko aukera.

(16) 999/2001 (EE) Erregelamendua aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren arabera onartu behar dira. Batzordeari esleituriko betearazte-eskumenak baliatzeko prozedurak ezarri ditu azken erabaki horrek ⁽¹⁾. 404/2 L EU Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala 2006.12.30

(17) Zehazki, Batzordeari eskumena eman behar zaio honakoak egin ditzan: diagnostiko azkarreko probak onartzeko, animalien adina egokitzeko, tolerantzia-maila sartzeko eta hausnarkari gazteei arrainetik eratorritako proteinak jaten emateko baimena emateko; material arriskutsua ateratzeko eta sunsitzeko betebeharraren gain salbuespenak xedatuko dituzten arauak ezartzeko; egoera epidemiologikoa hobetu dela frogatzeko, zenbait murriztapenen salbuespenak baimentzeko eta hainbat produkzio-baldintza ezartzeko irizpideak arautzeko. Neurri horien aplikazio-esparrua orokorra da. Horrez gain, mintzagai ditugun neurrien xedea da 999/2001 (EE) Erregelamenduko funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea edota funtsezkoak ez diren elementu berriak sartuz osatzea. Horregatik guztiagatik, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikulua xedatutako kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarri behar dira arestian aipaturiko neurriak.

(18) Horrenbestez, 999/2001 (EE) Erregelamendua ildo horretan aldatu behar da.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

I. artikulua

999/2001 (EE) Erregelamendua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

1) Kontuan hartuzko hau gehituko zaio:

«(8 bis) Animalia ez hausnarkarietatik datozen eta aldatuak izan diren zenbait animalia-proteina animalia ez hausnarkariak elikatze erabiltzeko baimena emateko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urriaren 3ko 1774/2002(EE) Erregelamenduan, pertsonak kontsumituko ez dituzten animalia azpiproduktuei aplika dakizkiekeen osasun arauak ezartzekoan, jasotako espezie desberdinen artean birziklatzeko debekua kontuan hartu behar da (*). Kontuan hartu behar dira, horrez gain, zenbait kontrol-neurri, esaterako, zenbait espezieren animalia-proteina aldatuen ezaugarriak bereiztea, Batzordeak 2005eko uztailaren 15ean EEKei ezarritako ibilbide-orriari buruzko jakinarazpenean ezarri bezala.

¹ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak aldatu du (EO L 200, 2006.07.22koa, 11.or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(*) L 273 EO, 2002.10.10ekoa, 1. or. Azken aldaketa Batzordearen 208/2006 (EE) Erregelamenduak (L 36 EO, 2006.02.08koak, 25. or.) egin dio.»

2) Kontuan hartuzko hauek gehituko dira:

«(11 bis) 2004ko urriaren 28ko Ebazpenean (**), hausnarkariak animalia-proteinak jatearekiko kezka agertu zuen Europako Parlamentuak, animalia-proteinak ez baitira ganadu helduaren elikadura naturalaren parte. BSEaren eta sukar aftosoaren krisialdiaren ondoren, gero eta argiago ikusten da animaliak espezie bakoitzaren ezaugarriak errespetatu haztea eta elikatzea dela pertsonen eta animalien osasuna babesteko modurik onena. Zuhurtasun-printzipioari jarraiki, hausnarkarien bizi-baldintza eta elikadura naturalak zaintze aldera, mantendu beharra dago elikadura naturalean hartu ohi ez dituzten animalia-proteinak erabiliz animalia hausnarkariak elikatzeko debekua.

(11 ter) Haragia hezurretatik mekanikoki bereiztean, muskulu-zuntzaren egitura suntsitu edo aldatu ohi da eta haragi artean hezur- edo periostio-zatiak (hezurra estaltzen duen mintza) ager daitezke. Hori dela eta, hezurretik mekanikoki bereizirik haragia ezin da haragi normalarekin alderatu. Ondorioz, mintzagai dugun haragi-mota pertsonen kontsumitzeko arauak berraztertu behar dira.

(**) C 174 E EO, 2005.07.14, 178. or.».

3) 3. artikuluko 1. paragrafoa jarraian adierazi bezala aldatu da:

a) D idatz-zatiaren ordezkari ondoko testu hau jarriko da:

«d) “diagnostiko azkarrerako probak”: X. eranskinean aipaturiko analisi-prozedurak, hogeita lau orduko denbora-tartean emaitzak eskaintzen dituztenak»;

b) Honako idatz-zatiak sartuko dira:

«n) “mekanikoki bereizirik haragia” edo MBH: baliabide mekanikoak erabiliz hezurak kendu ondoren, hezur haragitsuetatik haragia kenduz sorturiko produktua. Baliabide mekaniko horien eraginez muskulu-zuntzaren egitura aldatu edo suntsitu egiten da.

o) “zaintza pasiboa”: EEKren batek kutsaturik egon litezkeen animalia guztien berri ematea. Azterketa klinikoak EEKren bat dagoela baztertzeko ez badu, animalia horiei laborategiko probak egin beharko zaizkie.

p) “zaintza aktiboa”: EEKren batek kutsaturik egon daitezkeela komunikatu ez den animaliei probak egitea. Aipatu probak honako animalia hauei egin ohi zaizkie: premiazko neurriren bat betetzeko hil behar izan diren animaliei; hil aurretiko probetan sintomak hauteman zaizkien animaliei; hilik aurkituriko animaliei; hil diren animalia osasuntsuei eta BSEren batek jota egoteagatik hil behar izan diren animaliei. Proba horiek egin egingo dira, batez ere, EEKren batek herrialde edota eskualderen batean izan duen bilakaera eta prebalentzia zehazteko.

4) 5. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordezkari ondoko testu hau jarriko da: «1. Estatu kideetan edo hirugarren herrialdeetan edo horien eskualdeetan (aurrerantzean “herrialde edo eskualde”) BSEaren egoera zein den zehazteko, aipaturiko gaitza ondoko hiru kategoria hauetakoren batean kokatuko da.

– BSE arrisku ezdeusa, II. eranskinean definitu bezala,

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

– BSE arrisku kontrolatua, II. eranskinean definitu bezala,

– BSE arrisku zehaztugabea, II. eranskinean definitu bezala.

Herrialde edo eskualdeen BSEaren araberako osasun kalifikazioa zehazteko II. eranskineko A kapituluari jasotako irizpideak soilik hartu ahal izango dira oinarri. Irizpide horiek arriskuaren analisiaren emaitzak bilduko dituzte. Analisi horrek BSEa agertzearen faktore guztiak hauteman beharko ditu, II. eranskineko B kapituluari definitu bezala. Analisiak, halaber, BSEak denboran izan duen bilakaera islatuko du, baita arriskupean dagoen herrialde edo eskualdearen kategorian kontuan hartu ohi diren zaintza aktiboko eta zaintza pasiboko neurri orokorrak ere.

Bada Erregelamendu honetan zehaztu diren produktuak edo animalia biziak Erkidegora esportatzeko baimena duten hirugarren herrialdeen zerrenda. Hartara, zerrenda horretan agertzen jarraitu nahi duten hirugarren herrialdeek nahiz estatu kideek eskabide bat aurkeztu behar diote Batzordeari BSEaren osasun-ziurtagiria zehazte aldera. Eskaerarekin batera, II. eranskineko A kapituluari aipatu diren irizpideei dagokien informazioa aurkeztu behar da, baita II. eranskineko B kapituluari aipatu diren arrisku potentzialen faktoreei eta azken horiek denboran izan duten bilakaerari buruzko informazioa ere».

b) 4. paragrafoaren ordean ondoko testu hau jarriko da:

«4. 1. paragrafoko hirugarren lerroan ezarritakoaren arabera eskabiderik aurkeztu ez duten hirugarren herrialdeek eta estatu kideek, aipatu eskabidea aurkeztu ez duten bitartean eta herrialde nahiz estatu kideen BSEko kalifikazio sanitarioari buruz azken erabakia hartu ez den bitartean, BSE arrisku zehaztugabea duten herrialdeei aplikatu dakizkiekeen inportazio-baldintzak bete egin behar dituzte, betiere herrialde nahiz estatu kide horietatik kanpo bizirik dauden animaliak edo animalia jatorriko produktuak bidaltzeari dagokionez».

5) 6. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren ordean ondoko testu hau jarriko da:

«1. Estatu kideek BSEaren segimendua egiteko programa beteko dute urtero. Programa horrek zaintza aktiboa eta pasiboa izango ditu oinarri, betiere III. eranskinean esandakoaren arabera. Animalia espezieentzako eskuragarri badago, programak hautemate sistematikorako prozedura hartuko du barne. Hautemate sistematiko hori diagnostiko azkarreko proben bidez egingo da.

Ondorio horietarako, diagnostiko azkarreko probak 24. artikuluko 3. paragrafoan zehazturiko prozeduraren arabera baimenduko dira, eta X. eranskineko zerrendan jasoko».

b) Honako paragrafoak gehituko dira:

«1 bis. 1. paragrafoan aipaturiko segimenduko urteko programak, gutxienez, jarraian aipatzen diren azpipopulazioak estaliko ditu:

a) «premiak hil» behar izan diren 24 hilabetetik gorako behiak, edo hil aurretiko ikuskapenean sintomak hauteman zaizkien behiak,

b) ohi bezala hil diren eta pertsonen jatekoak diren 30 hilabetetik gorako behiak,

c) pertsonen jateko hil ez diren, baserrian hil diren, baserrietik kendu dituzten, garraiatzean hil diren edo hiltegiari hil diren 24 hilabetetik gorako behiak (animalia hilak).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kideek c) idatz-zatian xedatutakoari salbuespenak ezarri ahal izango dizkiote, betiere urrutiko eskualdeak badira, ganadu dentsitate urrikoak badira eta animalia hilak hartzeko antolakuntzarik ez badute. Aukera horretaz baliatzen diren estatu kideek Batzordea jarriko dute jakinaren gainean. Horrez gain, eskualde salbuetsien zerrenda eta salbuespenaren justifikazioa aurkeztuko dituzte. Salbuespenak ez du estaliko estatu kide baten behi aziendaren % 10 baino gehiago.

1 *ter.* Dagokion zientzia batzordeari kontsulta egin ondoren, 1 *bis* paragrafoko a) eta c) idatz-zatietan ezarritako adina aurrerapen zientifikoaren arabera egokitu ahal izango da, 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat.

24. artikuluko 3. paragrafoan aipatu den prozedurarekin bat ezarriko diren irizpide zehatzen arabera herrialdearen egoera epidemiologikoak hobera egin duela egiaztatzen dezakeen estatu kide batek hala eskaturik, estatu kide horren segimendua egiteko urteko programak berraztertu ahal izango dira.

Estatu kide interesdunak arriskuari buruzko analisi orokorra egin eta ezarritako neurrien eraginkortasuna zehazteko gai dela erakusten duten frogak aurkeztu beharko ditu. Frogatu beharko du ere pertsonen nahiz animalien osasuna babesteko gai dela. Estatu kideak, zehazki, honakoak frogatu beharko ditu:

a) BSEa argi murriztu dela edo maila egonkor apalean dela. Horretarako, hautemate-proben emaitza eguneratuak hartuko dira oinarri.

b) gutxienez, sei urtez BSEa hautemateko programa osoa aplikatu eta ezarri duela (bizirik dauden animalien trazabilitateari eta BSEaren segimenduari buruzko erkidegoko legeak).

c) ganadua elikatzeari buruz erkidegoko legeek ezartzen dituzten erabateko debekuak, gutxienez, sei urtez ezarri eta aplikatu dituela.».

c) honako paragrafoa gehituko da:

«5. Artikulu hau aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako prozedurari jarraiki ezarriko dira.».

6) honako artikulua gehituko da:

«6 *bis* artikulua

Hazkuntza-programak

1. Estatu kideek hazkuntza-programak ezarri ahal izango dituzte EEKekiko erresistenteak diren ardiak hautatzeko. Programek EEKekiko erresistente gisa kalifikatu diren hainbat artalde aztertzeke atala izango dute. Programa horiek, halaber, zabaldu ahal izango dira beste animalia espezie batzuk hartzeko. Horretarako, espezie horien genotipo bereziak EEKekiko erresistenteak direla egiaztatzen duten frogak zientifikoak hartuko dira kontuan.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan jaso diren programentzako xedapen zehatzak 24. artikuluko 2. paragrafoan ezarri den prozedurarekin bat ezarriko dira.

3. Hazkuntza-programak ezartzen dituzten estatu kideek aldizka emango diote haien berri Batzordeari, hazkuntza-programak zientifikoki ebaluatu daitezkeen. Ebaluatu ahal izango da, batez ere, EEK agerraldien maiztasunaren, aniztasunaren eta aldakortasun genetikoaren gain programek duten eragina, baita antzinako ardi-arrazak, ardi-arraza arraroak edota eskualde jakin bati egokituriko ardi-arrazak zaintzeko hazkuntza-programek duten eragina ere. Hazkuntza-programen ondorio orokorrak nahiz emaitza zientifikoak aldian-aldian ebaluatuko dira eta, beharrezkoa izango balitz, aldatu.».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

7) Honela aldatuko da 7. artikulua:

a) 1, 2, 3 eta 4. paragrafoen lekuan honako testua jarriko da:

«1. Debekatuta dago animalia-jatorriko proteinak erabiltzea hausnarkariak elikatzeke.

2. 1. paragrafoan jasotako debekua hausnarkariak ez diren animaliei ere aplikatuko zaie eta, animalia ez hausnarkariak animalia-jatorriko produktuekin elikatzeari dagokionez, IV. eranskinaren arabera mugatuko da.

3. 1 eta 2. paragrafoak IV. eranskinean xedatutakoa bazter utzi gabe aplikatuko dira. IV. eranskinean, besteak beste, paragrafo hauetan jaso diren debekuen salbuespenak ezarri dira.

Batzordeak hausnarkarien kumeak arrainetatik eratorritako proteinekin elikatzeke baimena eman dezake, 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat, hausnarkari-kumeen elikatzeko beharren ebaluazio zientifikoa oinarri harturik, artikuluko honetako 5. paragrafoan aipatu diren eta artikuluko hau aplikatzeko ezarri diren xedapenak bazter utzi gabe, eta salbuespen hau kontrolatzeko buruzko alderdiak ebaluatu ondoren.

4. BSE arrisku zehaztugabea kategoriako estatu kideek edo estatu kide horietako eskualdeek debekaturik dute ugaztunetatik datozen proteinak dituzten ganaduarentzako pentsuak esportatzea edo biltegitzea. Debekaturik dute ere ugaztunetatik datozen eta proteina tratatuak dituzten ugaztunentzako pentsuak esportatzea edota biltegitzea, salbu eta txakurrentzako, katuentzako edota larrugintzarako erabiltzen diren animalientzako pentsuak ez badira.

BSE arrisku zehaztugabea kategorian dauden hirugarren herrialdeek edo herrialde horietako eskualdeek debekaturik dute ugaztunetatik datozen proteinak dituzten ganaduarentzako pentsuak Erkidegora esportatzea edo biltegitzea. Debekatzen zaie, halaber, ugaztunetatik datozen proteina tratatuak osagai dituzten ugaztunentzako pentsuak Erkidegora esportatzea edota biltegitzea, salbu eta txakurrentzako, katuentzako edota larrugintzarako erabiltzen diren animalientzako pentsuak badira.

Estatu kideren batek edota hirugarren herrialderen batek hala eskatuz gero, paragrafo honetan zehazturiko murriztapenen gain banakako salbuespenak baimentzeko erabakia hartu ahal izango da. Erabaki horrek irizpide zehatzetan oinarriturik egon behar du eta 24. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat etorri. Irizpide xehatu horiek 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera ezarriko dira. Salbuespen guztiek kontuan izan beharko dituzte artikuluko honetako 3. paragrafoan jasotako xedapenak».

b) Paragrafo hau gehituko da: «4 bis. Pentsuak animalia-proteina kopuru txikiekin nahigabeen edo teknikoki saihestezina izan den moduan kutsatu diren kasuetan, tolerantzia-maila ezartzeko erabakia hartu ahal izango da, betiere, 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki. Erabaki hori hartzeko, arriskuaren aldeko ebaluazioa oinarri hartu beharko da, zeinak, gutxienez, kutsaduraren irismena, balizko jatorria eta lotearen azken xedea kontuan izango dituen.

c) 5. paragrafoaren ordez ondoko testu hau jarri beharra dago: «5. Artikulu hau garatzeko beharrezkoak diren arauak 24. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki ezarriko dira, batez ere, kutsadura gurutzatua prebenitzeko arauak eta artikuluko hau betetzen dela egiaztatzeke gauzatu behar diren lagin-analisiak nahiz laginketa-metodoak. Arau horiek Batzordeak animalia-jatorriko pentsuen jatorriari, transformazioari, kontrolari eta trazabilitateari buruz egin duen txostena izango dute oinarri».

8) 8. artikuluko 1etik 5era arteko paragrafoen lekuan honako testua jarriko da:

«1. Arriskutsutzat jotako materiala atera eta ezabatu egingo da, Erregelamendu honetako V. eranskinean nahiz 1774/2002 (EE) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Ez da Erkidegora inportatuko. . eranskinean, arriskutsutzat hartu den materialaren zerrenda jaso da. Zerrenda horretan, gutxienez, hamabi hilabetetik gorako behien amigdalek, begiek, orno muinek eta garunek agertu behar dute, baita 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki zehaztu den

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

adina duten behien bizkarrezurrek ere. 5. artikuluko 1. paragrafoaren lehendabiziko lerrokadan ezarri diren arrisku-kategoria desberdinen arabera eta 6. artikuluko 1 *ter* paragrafoaren b) idatz-zatian nahiz 1 *bis* paragrafoan jaso diren baldintzen harira, V. eranskinean ageri den material arriskutsuaren zerrenda aldatuko da.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoa ez zaie aplikatuko 24. artikulua 3. paragrafoan jasotako prozedurarekin bat etorritz aukerako beste proba baimendu bat egin zaien animalien zuntzei, betiere, aipatu berri dugun proba X. eranskineko zerrendan ageri bada, V. eranskinean zehazturiko baldintzak betez gauzatu bada eta haren emaitzak negatiboak badira.

Paragrafo honetan ezarritakoaren arabera, aukerako beste proba bat erabiltzeko baimena ematen duten estatu kideek haren berri eman beharko diote, bai gainerako estatu kideei, bai Batzordeari.

3. BSE arrisku kontrolatu edo zehaztugabea duten estatu kideetan edota estatu kideetako eskualdeetan, behiei, ardiei eta ahuntzei ez zaie, zorabiatu ondoren, nerbio-ehun zentrala urratuko burezurreko barrunbean makila luze bat sartuz edo burezurreko barrunbean gasa injektatuz, baldin eta animalia horien haragia pertsonak edo beste animaliek kontsumituko badute.

4. Adinari buruz V. eranskinean zehaztu diren datuak egokitu ahal izango dira. Egokitzapen hori gauzatzeko, Erkidegoko behien, ardien eta ahuntzen adin-tarte jakinetan EEK bat agertzeko probabilitate estatistikoari buruzko azken datuek ekarritako jakintza zientifiko demostratuak hartuko dira oinarri.

5. Aintzat hartuta 24. artikulua 3. paragrafoko prozedura, artikulu honen 1. tik 4. era arteko paragrafoetan xedatutakoaren salbuespenak arau daitezke, betiere, 7. artikulua 1. paragrafoan aurreikusirik debekua eraginkortasunez aplikatzeko datari dagokionez. Horrez gain, BSE arrisku kontrolatua duten hirugarren herrialdeetan edota hirugarren herrialdeetako bateko eskualdean, zenbait arau ezarri ahalko dira ugaztunetatik etorritako proteinak hausnarkariak elikatze erabiltzeko debekua eraginkortasunez aplikatzeko dataren gain. Horrela, herrialde edota eskualde interesdunetan data finkatuaren aurretik jaiotako animaliei arriskutsua den materiala ateratzeari edota ezabatzeari buruzko baldintzak mugatu ahal izango zaizkie.

9) 9. artikuluko 1. eta 2. paragrafoen lekuan, testu hau jarriko da:

«1. VI. eranskinean ageri diren animalia jatorriko produktuak 24. artikuluko 3. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera onartuak izan diren produkzio-baldintzetan elaboratuko dira.

2. Mekanikoki Bereiziriko Haragiak (MBH) lantzean ez dira erabiliko jatorriz BSE arrisku kontrolatua edo zehaztugabea duten herrialde edota eskualdeetakoak diren behien, ardien zein ahuntzen hezurak. 2008ko uztailaren 1a baino lehen, estatu kideek Batzordeari beren lurraldeetan MBH ekoizteko baliatzen diren metodoen eta metodo horien erabilerari buruzko txostena aurkeztuko diote. Txostenean, halaber, aurrerantzean MBH ekoizten jarraitzeko asmoa duten ala ez zehaztuko dute estatu kideek.

Txosten horiek oinarri harturik, Batzordeak jakinarazpen bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Aipatu jakinarazpena Erkidegoaren etorkizuneko MBH beharren nahiz erabileren gainekoa izango da, eta kontsumitzailea informatzeko politika jasoko du».

10) 12. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) 1. paragrafoaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

«1. Animalia bat EEKren batek kutsaturik dagoenaren susmoa badago, animalia horrek zirkulazioaren gaineko mugatze ofiziala izango du, harik eta agintaritzak eskumendunak eginiko azterketa kliniko eta epidemiologikoaren emaitza ezagutzen den arte. Bestela ere, animalia hil eta laborategian azterketa egin dakioko; betiere, ikuskapen ofizialpean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kideren bateko ustiategiren batean behiren batek EEKren bat duenaren susmo ofiziala badago, ustiategi bereko gainerako behi guztiek zirkulazio murriztapen ofiziala bete beharko dute, azterketaren emaitza ezagutu arte. Estatu kideren bateko ustiategiren batean ardiren edota ahuntzen batek EEKren bat duenaren susmo ofiziala badago, ustiategi bereko gainerako ardi edota ahuntz guztiek zirkulatzeko murriztapen ofiziala izango dute, azterketaren emaitza ezagutu arte.

Nolanahi ere, baliteke EEKen susmoa agertu zenean animalia zegoen ustiategia ez izatea animaliak gaitza hartu zueneko ustiategia. Hori horrela dela erakusten duten seinaleak badaude, agintaritzak eskumendunak kutsatua egotearen susmopean dagoen animalia zirkulazioa soilik ofizialki murriztea ebatzi dezake.

Beharrezkotzat joz gero, eskuetan duen informazio epidemiologikoa oinarri harturik, agintaritzak eskumendunak erabaki ahal izango du animaliak gaitza hartu zueneko ustiategia soilik edo beste ustiategi batzuk ere ikuskapen ofizialpean egotea.

24. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozedurari jarraiki eta zirkulazioaren gaineko murriztapen ofizialari buruz paragrafo honetan xedatutakoa xedatuta ere, mintzagai dugun murriztapena aplikatzeko beharra ken dakioko estatu kide bati, betiere, berme baliokideak eskaintzen dituzten neurriak aplikatzen baditu. Neurri horiek animalien nahiz pertsonen osasunerako egon daitezkeen balizko arriskuen ebaluazio egokia izan behar dute oinarri.

b) 3. paragrafoaren ordezt, ondoko testu hau jarriko da:

«3. Animalia susmagarriaren gorputz atal guztiak ikuskapen ofizialpean zainduko dira diagnostiko negatiboa ezagutu arte. Bestela, 1774/2002 (EE) Erregelamenduan xedaturikoaren arabera ezabatuko dira».

11) 13. artikuluko 1. paragrafoa jarraian adierazi bezala aldatuko da:

a) Lehenengo lerrokadako a) idatz-zatiaren ordezt ondoko testu hau jarriko da:

«a) kutsaturiko animalia zirkulazioaren gorputz-atel guztiak ezabatu egingo dira 1774/2002 (EE) Erregelamenduan xedaturikoaren arabera. Erregelamendu honetako III. eranskineko B kapituluarekin bat erregistroetarako gorde diren materialak, ordezt, ez dira suntsituko».

a) Lehenengo lerrokadako a) idatz-zatiaren ordezt ondoko testu hau jarriko da:

«c) arriskupean egon diren animalia guztiak nahiz beroretatik eratorritako produktuak, Erregelamendu honetako VII. eranskineko 2. paragrafoan zehazturikoak eta b) idatz-zatian aipaturiko ikerketan identifikatuak izan direnak, 1774/2002 (EE) Erregelamenduan xedaturikoaren arabera hil eta ezabatuko dira».

c) Lehendabiziko lerrokadaren ondoren, honako paragrafo hau gehituko da:

«Estatu kide batek hala eskatzen badu, eta estatu kide horren kontrol-neurriak bereziki kontuan dituen arriskuari buruzko ebaluazioa aldekoa izan bada, erabaki bat hartu ahal izango da paragrafo honetan aipaturiko behiak haien bizi produktiboa amaitu arte erabiltzea baimentzeko, betiere, 24. artikuluko 2. paragrafoan jasotako prozeduraren arabera».

12) 15. artikuluan, ondoko testu hau jarriko da, 3. paragrafoaren lekuan:

«3. 24. artikuluko 3. paragrafoak araututako prozedurarekin bat etorrit, 1. eta 2. paragrafoetako xedapenak beste animalia-espezie batzuei ere aplikatu dakizkieke. 4. Artikulu hau garatzeko arauak 24. artikuluko 2. paragrafoan jaso den prozeduraren arabera ezarri ahal izango dira».

13) 16. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) 1. paragrafoko b) idatz-zatiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

«b) esnea, esnekiak, larruak eta larruetatik eratorritako gelatina nahiz kolagenoa».

a) 2. eta 3. paragrafoen lekuan honako testua jarriko da:

«2. BSE arrisku kontrolatua edota zehaztugabea duten hirugarren herrialdeetatik datozen animalia-jatorriko produktuek behi, ardi eta ahuntz osasuntsuetatik etorritakoak izan beharko dute, zeinei ez zaien nerbio-ehun zentrala urratu ezta burezurreko barrunbean gasa injektatu ere, 8. artikulua 3. paragrafoan aipatu bezala.

3. Ez dira merkaturatuko jatorriz BSE arrisku zehaztugabea duten herrialde edota eskualdeetakoak diren behietatik eratorritako materialak dituzten animalia-jatorriko elikagaiak, salbu eta ondoko animalietatik badatoz:

a) ugaztunetatik eratorritako proteinak hausnarkariak elikatze erabiltzeari buruzko debekua eraginkortasunez aplikatu den egunetik zortzi urte igaro ondoren jaio diren animalietatik; eta

b) gutxienez, zazpi urtez BSErik pairatu ez eta halaxe ziurtaturik duten taldeetan jaio, hazi eta bizi izan diren animaliak.

Horrez gain, debekaturik dago BSE arrisku zehaztugabea duen estatu kideren edo haren eskualderen batetik beste estatu kide batera hausnarkarietatik eratorritako janariak bidaltzea. Debekaturik dago, halaber, produktu horiek BSE arrisku zehaztugabea duen hirugarren herrialderen batetik inportatzea.

Aipatu berri dugun debekua ez zaie aplikatuko VIII. eranskineko C kapituluaren aipatu diren eta kapitulu horretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten animalia-jatorriko produktuei.

Produktuekin batera osasun-ziurtagiria bidali beharra dago. Ziurtagiri horrek albatari ofizial batek egina behar du. Osasun-ziurtagiriaren bidez, hortaz, produktua Erregelamendu honekin bat etorritik landu dela egiaztatuko da».

14) honako artikulua gehituko da:

«23 bis artikulua

24. artikuluko 3. paragrafoan jaso den kontrolpeko arautze-prozedurarekin bat, funtsezkoak ez diren Erregelamendu honetako elementuak aldatu eta Erregelamendua osatuko duten neurriak gehitze aldera, honako neurriak hartuko dira:

a) 6. artikuluko 1. paragrafoan nahiz 8. artikuluko 2. paragrafoan aipatu diren diagnostiko azkarreko probak onartzea;

b) 6. artikuluko 1 *ter* paragrafoan aipatu den adina egokitzea;

c) 6. artikuluko 1 *ter* paragrafoan aipatu den egoera epidemiologikoak hobera egin duela egiaztatzeko irizpideak;

d) hausnarkari gazteak arrainetatik eratorritako proteinek elikatzea baimentzeko erabakia, 7. artikulua 3. paragrafoan aipaturikoa;

e) 7. artikuluko 4. paragrafoan aipatu diren murriztapenen salbuespenak baimentzeko irizpideak;

f) 7. artikulua 4 *bis* paragrafoan aipatu den tolerantzia-maila ezartzeko erabakia;

g) 8. artikuluko 1. paragrafoan aipatu den adinaren gaineko erabakia;

h) 8. artikuluko 5. paragrafoan aipatu den material arriskutsua ateratzeko edo ezabatzeko beharrari aplikatu dakizkiokeen salbuespenak erregulatzen dituzten arauak;

1923/2006 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 404/1, 2006/12/30ekoa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

i) 9. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren produkzio-baldintza onartuak;

j) zenbait xedapen beste animalia-espezie batzuetara zabaltzeko erabakia, 15. artikulua 3. paragrafoan aipatu bezala».

15) 24. artikulua ordez ondoko testu hau jarriko da:

«24. artikulua **Komiteak**

1. Batzordeak elikakatearen eta animalia-osasunaren Komite iraunkorraren laguntza izango du. 6 biz artikulua gain, Batzordeak zootekniako komite iraunkorraren aholkuak jasoko ditu ere.

2. Atal hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua aplikatu behar dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

Erabaki horretako 5. artikuluko 6. paragrafoan zehazturiko epea hiru hilekoa izango da. Erregelamendu honetako 4. artikuluko 2. paragrafoan jasotako babes-neurrien epea, aldiz, 15 eguneko izango da.

3. Atal hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1, 2, 3 eta 4. paragrafoak nahiz 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez».

16) artikulua hau gehituko da:

«24 bis artikulua

24. artikuluan jaso diren prozeduretako bati jarraiki hartu diren erabakiek pertsonen nahiz animalien osasunerako produktuak izan dezakeen arrisku potentzialaren ebaluazio egokia izango dute oinarri. Horrez gain, dauden frogazientifikoa kontuan harturik, Erkidegoan bermatu ohi den pertsonen nahiz animalien osasunaren babes-maila zaindu edo, arriskua zientifikoki egiaztaturik badago, babes-maila handitu beharko litzateke».

2. artikulua

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeitun egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak derrigorrez bete beharrekoak eta estatu kide guztietan zuzenean ezartzekoak izango dira.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

Europako Parlamentuaren izenean, Presidentea J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean, Presidentea J.E. ENESTAM